



Iturria: *Olerkiak eta eresiak*, J.M. Iparragirre. Hiria, 2004.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/I/IparragirreEresiak.htm>

## **OLERKIAK ETA ERESIAK**

**Jose Mari Iparragirre**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **GERNIKAKO ARBOLA**

Gernikako arbola  
Da bedeinkatuba,  
Euskaldunen artean  
Gutziz maitatuba.  
Eman da zabaltzazu  
Munduban frutuba;  
Adoratzen zaitugu  
Arbola santuba.

Mila urte inguru da  
Esaten dutela,  
Jainkoak jarritzubela  
Gernikako arbola.  
Zaude bada, zutikan  
Orain da denbora,  
Eroritzen bazera  
Arras galdu gera.

Etzera eroriko,  
Arbola maitea,  
Baldin portatzen bada  
Bizkaiko Juntia.  
Laurok artuko degu  
Zurekin partia,  
Pakian bizi dediñ  
Euskaldun jentia.

Betiko bizi dediñ  
Jaunari eskatzeko  
Jarri gaitezen danok  
Laister belauniko.



Eta biotzetikan  
Ezkatu ezker,  
Arbola biziko da  
Orain eta gero.

Arbola botatzia  
Dutela pentzatu  
Euskal-erri guziyan  
Denak badakigu.  
Ea bada jendia,  
Denbora orain degu  
Erori gabetanik  
Iruki biagu.

Betiko egongo zera  
Uda berrikoa  
Lore aintziñetako  
Mantza gabekua.  
Errukizaitetz bada  
Biotz gurekua,  
Denbora galdu gabe  
Emanik frutuba.

Arbolak erantzun du  
Kontuz bizitzeko  
Eta biotzetikan  
Jaunari eskatzeko.  
Gerrarik nai ez degu  
Pakea betiko  
Gure lege zuzenak  
Eman maitatzeko.

Erregutu diogun  
Jaungoiko Jaunari  
Pakea emateko  
Orain eta beti.  
Bai eta indarrare  
Zedorren lurrari,  
Eta bendiziyoa  
Euskal-erriari.

Orain kanta ditzagun  
Lau bat bertso berri  
Gure probintziaren  
Alabantza garri.  
Arabak esaten du  
Su garrez beterik  
Nere biotzekua  
Eutsiko diat nik.

Gipuzkoa urrena  
Arraz zentiturik  
Asi da deadarrez  
Ama Gernikari.  
Erori etzaitezen  
Arrimatu neri  
Zure zendogarriya  
Eman naukazu ni.

Ostoa berdia ta  
Zañak ere fresko  
Nere seme maiteak  
Ez naiz eroriko.  
Beartzen banaiz ere  
Egon beti pronto  
Nigandikan etsayak  
Itsulitzareko.

Guztiz maitagarria  
Eta oestargiña  
Begiratu gaitzazu  
Zeruko erregiña.  
Gerrarik gabetanik  
Bizi albagiña  
Oraindaño izan degu  
Guretzako diña.



## NERE AMAK BALEKI

Zibilak esan naute  
 Biziro egoki  
 Tolosan biar dala  
 Gauza erabaki.  
 Giltzapian sartu naute  
 Poliki poliki  
 Negar egingo luke  
 Nere amak baleki.

Jesus tribunalian  
 Sutenian sartu  
 Etziyon Pilatosek  
 Kulparik bilatu.  
 Neri ere arkitu  
 Ez dirate barkatu  
 Zergatik ez dituzte  
 Eskubak garbitu.

Kartzelatik aterata  
 Fiskalaren etxera  
 Abisatu ziraten  
 Juateko beriala.  
 Ez etortzeko geyago  
 Probintzi onetara  
 Orduan artunuan  
 Santander-aldera.

## KANTARI EUSKALDUNA

Gitarra zartxo bat da  
 Neretzat laguna;  
 Onela ibiltzen da  
 Artista euskalduna:  
 Egun batean pobre,  
 Beste batez jauna,  
 Kantari pasatzen det  
 Nik beti eguna.

Naiz dala Italia,  
 Oro bat Francia  
 Bietan bilatu det  
 Anitz malizia  
 Ikusten badet ere  
 Nik mundu guzia  
 Beti maitatuko det  
 Euskalerria.

Jaunak ematen badit  
 Neri osasuna,  
 Izango det oraindik  
 Andregai bat ona.  
 Emen badet frantsesa  
 Interesa duna,  
 Baña nik naiago det  
 Utzik euskalduna.

Agur Euskal-Erria  
 Baña ez betiko  
 Bost edo sei urtetan  
 Ez det ikusiko.  
 Jaunari eskatzen diot  
 Grazia emateko  
 Nere lur maite ontan  
 Ezurrak uzteko.



## NERE MAITEARENTZAT

Ume eder bat ikusi nuen  
 Donostiako kalean,  
 itz erditxo bat ari esan gabe  
 nola pasatu parean?  
 Gorputza zuan liraina eta  
 oinak zebiltzen aidean,  
 politagorik ez det ikusi  
 nere begien aurrean.

Aingeru zuri, pare gabea,  
 Euskalerriko alaba,  
 usterik gabe zugana beti  
 nere biotzak narama.  
 Ikusi naian beti or nabil,  
 nere maitea, au lana!  
 Zoraturikan emen naukazu  
 beti pentsatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute,  
 aingeru on nun ago?  
 Nere maitea nola deitzen dan  
 ez du inortxok jakingo;  
 ez berak ere ez luke naiko,  
 konfiantza orretan nago.  
 Amoriodun biotz oberik  
 Euskalerrian ez dago.

## NERE ONGILLE MAITEEI

Ez dakit nola eskerrak eman  
 Ah! nere ongille maiteak  
 Nere lurrera bear nau eraman  
 Gaur zuen borondateak;  
 Egin dezute zer obra ona  
 Aberatz eta pobreak  
 Orra kunplitu agintzen duana  
 Jesukristoren legeak.

Biotz oneko jaunak badira,  
 Lista dutenak edertzen  
 Zori oneko nere zartzera  
 Ah! nola duten onratzen;  
 Munduan bada zorionikan,  
 Andre onak du egiten,  
 Gizonak izar oyetan  
 Zerua degu ikusten.

O! zu Romero Jimenez jauna,  
 nere adiskide maitea,  
 zure biotz onak kontsolatu du  
 nere anima tristea;  
 egiak dira nere ametsak:  
 mendietara joatea;  
 agur, Romero, au da neretzat  
 gozamentu eta pakea.



## AGUR EUSKALERRIARI

Gazte gaztetatikan  
 Erritik kanpora  
 Estranjeri aldean  
 Pasa det denpora;  
 Egiya alde guzietan  
 Toki onak badira  
 Baña biotzak dio  
 Zuaz euskalerrira.

Lur maitea emen ustea  
 Da negargarria  
 Emen gelditzen dira  
 Ama eta erria;  
 Urez noa ikustera  
 Bai, mundu berria  
 Oraintxen bai naizela  
 Errukigarria.

Agur nere biotzeko  
 Amatxo maitea  
 Laister etorriko naiz  
 Konsola zaitean;  
 Jaungoikoak nai badu  
 Ni urez joatera  
 Ama zertarako da  
 Negar egitea.

## GORA EUSKERA

Españian da gizon bat  
 Bear deguna maita  
 Franzisko Aizkibel jauna  
 Euskaldunen aita:  
 Txit da gizon prestua  
 Eta jakintzua  
 Errespetatzen desagun  
 Guk gure maitasua.

Ogeita geyo urtian  
 Bizi, da Toledo'n  
 Izarraizko semia  
 Ez da beti lo egon;  
 Liburuen gañian  
 Beti gau eta egun,  
 Gure euskera maitia  
 Galdu ez desagun.

Arabe eta hebreo  
 denak denak bera,  
 nere adiskideak:  
 gora, gora euskera!  
 Biotzean gurutza,  
 eskuan bandera,  
 esan lotsarik gabe  
 euskaldunak gera!

Pakean bizitzeko  
 gure mendietan  
 euskera itz egin bear da  
 batzarre denetan;  
 ta euskaldunen izean  
 geroko eunkietan  
 famatua izango da  
 alde guzietan.



## NERE ETORRERA LUR MAITERA

### I

Ara nun diran mendi maiteak  
 Ara nun diran zelayak  
 Baserri eder zuri zuriak  
 Iturri eta ibayak.

Endaian nago zoraturikan  
 Zabal zabalik begiak  
 Ara España... lur oberikan  
 Ez du Europa guziak.

### II

Gero pozik bai Donostira  
 Okendo-ren aurrera  
 Zeru polit au utzi bearra  
 Nere anayak, au pena!

Iru txulueta maitagarria  
 Lore tokiya zu zera  
 Beneziazen grazi guztiak  
 Gaur Donostian dira.

### III

Oh, Euskalerra eder maitea  
 Ara emen zure semea  
 Bere lurrari muñ egitera  
 Beste gabe etorria.

Zuregatikan emango nike  
 Pozik, bai biziya  
 Beti zureztat il arteraño  
 Gorputz eta anima guzia.

### IV

Agur bai Donostiako  
 Nere anai maiteak  
 Bilbao-tikan izango dira  
 Aita zarraren berriak.

Eta gañera itz neurtuetan  
 Garbi esanez eginak  
 Sud-Amerikan zer pasatzen dan  
 Jakiñ dezaten erriak.



## GLU, GLU, GLU

Biba Rioja, Biba Naparra  
Arkume onaren iztarra  
Emen guztiok anaiak gera  
Ustu dezagun pitzarra.

*Glu, glu, glu...*

Ardo fiña ta jateko ona  
Jartzen badute gaur ugari,  
Gure barrenak berdindurikan  
Jarriko dira guri, guri.

*Glu, glu, glu...*

Gure zabela bete bear da  
Albada gauza onarekiñ,  
Dagon lekutik, eragiñ bapo!  
Aupa mutilak! gogoz ekiñ.

*Glu, glu, glu...*

Ez ikaratu dagon artean  
Jan eta edan gaur gogotik,  
Ustutzen bada ekarko degu  
Berrero lengoko tokitik

*Glu, glu, glu...*

Umoria da gauzik onena  
Nai gabeak ditu astutzen,  
Uju ta aja asi gaitean  
Euskal doñuak kantatutzen.

*Glu, glu, glu...*

## NERE IZARRA

Zu zera nere izarra  
Zu nere eguzkia  
Aingeruen artetik  
Zerutik jaxxia.

Barren kalera nua  
Bertan nai det bizi,  
Antxen ikusiko det  
Sarritan Maiñasi.

Nere biotza dago  
Oso penaturik,  
Joan bear detalako  
Laister zure ondolik.

Zure ondoren nabil  
erdi txoraturik  
nere niotz gaisoa  
ezin sendaturik.

Zure amorio gabe,  
ai nere Mañazi!  
ez det mundu onetan  
geiago nai bizi.

Goizetikan gabea  
emen nago itxoten  
nere izar txuria ez  
da oraindik agertzen.

Alfer alferrik dabiltz  
zozuak kantari,  
ai! nere Mañazixok  
ez du nai etorri.





## ZUGANA MANUELA

Zugana, Manuela  
 Nuanian pensatu  
 Uste det ninduala  
 Deabruak tentatu,  
 Ikusi beziñ ekiñ  
 Naiz enamoratu  
 Ojala ez baziñan  
 Sekulan agertu.

Amorioz beterik  
 Esperantza gabe,  
 Zergatik egin ziñan  
 Biotz onen jabe,  
 Zuk esan biar zenduben  
 Emendikan alde  
 Egiaz ez naiz ni  
 Bizar dunen zale.

Aztu nai zaitut baña  
 Eziñ, eziñ aztu,  
 Zure amoriyuak  
 Buruba dit galdu;  
 Orain bigundu zenduke  
 Eta maitagarri orrek  
 Biotz on biundu  
 Piska bat lagundu.

Barkatu bear dituzu  
 Nere erkeriak  
 Sure begira daude  
 Nere bi begiyak;  
 Garbi, garbi esan ditut  
 Nere ustes egiak  
 Soraturikan nauka  
 Sure arpegiak.

Gabian ibilli naiz  
 Guzizko ametsetan  
 Donostian nengoela  
 Andre marietan;  
 Eta ikusi nubela  
 Erri artako plazan  
 Erdiyan zebillela  
 Manuela-txo dantzan.



## ERRUKARRIA

Aspaldien ezta gure etxean  
Ogirik ikusi,  
Bañan gaur txitxi ta parra  
Izango da noski.

*Gaur bai jana ta edana  
Labiru lena  
Jango otedegu dana  
labiru la. Ju!*

Oso arlote bizi gera,  
ezin osaturik;  
zenbat aldiz eguerdian  
oraindik baraurik.

*Gaur bai jana ta edana...*

Marto opillak egiteko  
arto egiteko,  
aitak atzo saldu zuen  
anega bat arto.

*Gaur bai jana ta edana...*

Talo esnea jateko gu  
gaude zaleturik;  
sei talo jango nituzke  
neronek bakarrik.

*Gaur bai jana ta edana...*

Gure sabelak eske daude  
au da miseria  
Erdi gosiak dagona  
Da errukarria.

*Gaur bai jana ta edana...*

Pitxarra ere guretzako  
izango da noski,  
gure barrena alai  
jarriko da aurki.

*Gaur bai jana ta edana...*



## AMERIKATIK URRETXUAKO SEMIEI

Billarreal de Urretxu  
Nere erri maitea  
Seme bat emen dezu  
Amoriorz betea.  
Nai, baña nola ikusi  
Au da lan tristea  
Zuretzat nai det bizi  
Urretxu nerea.

Bi milla eta seiregun  
Legua badira,  
Montebideotikan  
Euskal errira  
Naiz esperantzetan  
Etorri bagera  
Aurrerasun gabe  
Urtiak jua dira.

Bai, nere adiskideak  
Bear da pensatu  
Zuretzat Amerikak  
Nola dan mudatu  
Iñork emen eziñ du  
Lanikan billatu  
Oraiñ datorrenari  
Bear zaio damutu.

Gañera izan degu  
Emen ere gerra  
Gure zori onean  
Pakea egiñ da;  
Bañan gerra ondoren  
Dakar diktadura  
On Lorenzo Latorre  
Nagusi degula.

Ez, bada, ez etorri  
Gaur lur onetara  
Il edo bizi obe da  
Juatea Habanara;  
Au da gure bandera  
Españaren onra  
Txurrukaren semeak  
Ara juango gera.

Agur adiskideak  
Ikusi artean  
Zuenganatuko naiz  
Egunen batean.  
Esperantzakin bizi  
Nai det bitartean  
Gero ezurak utzi  
Nere lur maitean.



## MAIRUEN BANDERA

Nafarrak On Garcia  
 Errege zutela  
 Odolez estali zan  
 Bai Balde-Junkera.  
 Afrikanoak orruz...  
 Legoiak bezela  
 Zioten kristau bizirik  
 Utzi bear ez zala.

Baña Euskaldunak  
 Laurak-Bat aurrera!  
 Zioten: Fedegatik  
 Danok ilko gera;  
 Jo!... jo eta ez eman  
 Pauso bat atzera...  
 Gurea izan arte  
 Mairuen bandera.

Mutillak ... ara non dan  
 Illargi erdia,  
 Arrapatu dezagun  
 Naiz galdu bizia:  
 Emen degu bandera  
 Upa Euskal-erria!  
 Eta Anzuolarentzat  
 Onra ta gloria.

San Juan Uzarragako  
 Seme txit argiak  
 Ziran Balde-Junkeran  
 Irabaz larriak;  
 Batzar etxean dauden  
 Illargi erdiak  
 Dira Anzuolarentzat  
 Txit onrargarriak.

Esan adiskideak  
 Orduan bezela  
 Nafarrakin gaur ere  
 Anaiak gerala;  
 Bat da gure izarra  
 Bat gure bandera  
 Esan beti Laurak-bat  
 Izan nai degula.

Eskribitze mesede  
 egiten banauzu  
 Gabiriara karta  
 bidal bear duzu.  
 An baserri batean  
 beti triste nauzu  
 buruan ditudala  
 mila pentsamendu.

*1878 garren urtean*



## JAUNGOIKOA ETA ARBOLA

Fueristak gera, eta izango,  
 mundua mundu dan artean;  
 sentimentu au bizirik dago  
 betiko Euskalerrian,  
 naiz eri izan gure anima,  
 gaude soseguz bakean;  
 ikusiko da gure arbola  
 zutik egunen batean.

Mendietako raza noblea  
 gaur buru makur begira:  
 beti izan da fueroen legea  
 euskaldunen anima.  
 Argitasunik ez da ageri;  
 zerua dago iluna;  
 libertadea esan kantari  
 il arte maita dugula.

Zoaz, D. Karlos Zazpigarrena,  
 urrun bai gure lurretik;  
 Ez dezu uzi guretzat pena  
 eta tristura besterik;  
 Lutoz negarrez ama gaisoak,  
 Ay! ezin konsolaturik;  
 Ez degu nai ez geiago ikusi  
 zori gaiztoko gerrarik.

Euskaldun onak bear du eriotza  
 bila bere sorlekuan;  
 lurra da ama; maitatzen bada,  
 sartuko zera zeruan;  
 sinistu, maita, izan fedea  
 gure liburu santuan,  
 eta arbola biba orain eta  
 eriotzako orduan.

Amodiozko lege santuakin,  
 gorroto gabe biotzean,  
 Iberiako gure anaiekin  
 bizi nai degu bakean.  
 Gure izatea eta ondasunak  
 dira arbola maitean.  
 Libertadea maita dutenak  
 betoz gurekin batera.

Egunen batez agertuko da  
 gure goizeko izarra...  
 bere odoieta inguru dela  
 Jaun Zuriaren itzala,  
 Eta orduan zainetan bada  
 Ibero zarren odola  
 biziak eman esanez biba  
 Jaungoikoa eta arbola.

Arren! ez bada galdu esperantza  
 gerturatzen da eguna  
 nazioen liga edo alianza  
 da ikusiko duguna.  
 Orduan gora Kriston legea  
 Errespetatzen duguna.  
 Bai, Euskaldunen borondatea  
 da errien anaitasuna.



## NERE OLDOZMENA

Betiko nere religioa da  
adoratzea iru gauza,  
Jainkoa, lurra ta familia  
da nere urreko ametsa.

Baña, au lana! lurra naiean  
pil, pil da nere biotza  
ezurak ditut noski lurrean  
laster usteko esperantza.

## NABARRAKO EUZKO BAZKUNARI

Zorioneko batzar onetan  
Nabarrak gure anaiak,  
Bizi dirade lege onean  
Gaur guztiz gizon ernayak  
Guregatik on esango badu  
Etorkizunak kondairak  
Laurak bat beti... maite alkartu  
Izan euskaldun leyalak.

Alkar gaitezen txiki ta aundi  
Aberats eta pobreak  
Maita zaiteste, esaten digu  
Jaungoikoaren legeak.  
Auziak utsi alde batera  
Batu euskaldun guziak  
Besoak zabal esaten digu  
Gaur Iruña erriak.

Erruki zaitte, oh, Jaun maitea!  
Lagundu Euskalerra  
Bada guztiok alkartu gera  
Orain beltz eta zuriya  
Anai arteko guda beti da  
Guztizko negargarriya  
Arren anayak errespetatu  
Gizon guztien biziya.



## OROITZA (1879)

Elizondoko uri  
Eder politean  
Euskalduna ugari  
Bildu da pakian,  
Esanez batu gara  
Bai zori onean  
Gorrotorik gaur ezta  
Gure batzarrean.

Nafarren elkargoa  
Burutzat degula  
Zer zori onekoak  
Maitatzen bagera,  
Euskaldun on guztiak  
Zerura begira  
Ezan euskalerria  
Salbatu dedilla,

Mundu berrian ere  
Gaur euskaldun onak  
Nai gabetuak daude  
Biotza dutenak  
Galtzen gure euskera  
Onra eta oiturak  
Arren ez galdu doaiak!  
Jainkoak emanak.

Nafarren bide onak  
Gaur laurak batean  
Da artu bear dana  
Errien onean,  
Euskaldun on guztiak  
Betiko pakean  
Eztegu nai gudarik  
Anayen artean.

## GALDU GENDUEN GURE MORAZA

Zan Mateo Benigno  
Moraza on jauna  
Euskalerrri guziak  
Maita genduen,  
Prestua, jakintsua  
A zer biotz ona  
Jaungoikoak zerura  
Eraman ziguna!

Bitoriako semeak  
Ernai ta nobleak  
Gutziz maita zituan  
Fueroko legeak,  
Galdu ziradenean  
Zer naigabeak  
Bizia galdu arte  
Moraza maiteak.

Guk ere bear degu  
Morazak bezela  
Esan beti ill arte  
Fedea degu ta  
Gure Jaungoiko onak  
Laguntzen digula  
Noiz bat... Euskalerria  
Salbatuko dala.



## OBIAN

Euskalerria maite zuanaren  
 Orra nun degun obia  
 Lur santu on jartzera goazen  
 Lore koroez betia,  
 Igo zan zeruetara  
 Bitoriar prestu noblea  
 Bere izena gure biotzetan  
 Izan betiko gordea.

Galdu genduen gure Moraza  
 Baña bizi da izena  
 Laurak batentzat zan esperantza  
 Biotz nobleko gizona,  
 Gorde dezagun bere oroitza  
 Euskaldun onak bagera  
 Lur onegatik gure biotza  
 Eman Morazak bezela.

Amoriozko txit bide ona  
 Berak lur oni emana  
 Da euskaldunak betikoeran  
 Idurikatu beardana  
 Egun obe bat ez da urruti  
 Alkar maitatzen degula  
 Gure mendietan biziko gera  
 Anai maitiak bezela.

## OKENDORI

Zeruetan jarri al banezake  
 Gaur Okendoren izena  
 biotz guztitik jasoko nuke  
 Alderakedan bezela,  
 Baña zer lana au neretzako  
 Ezagueraz naiz laburra  
 Bear bezala ondo neurtzeko  
 bere Kondaira ederra.

Ogei ta zazpi urte zituala  
 Zan Gipuzka-tar azkarra  
 Etsaiak larri artzen zituana  
 Eman ezkeru aupada  
 Betiko onra Españarena  
 Itxasoetan bakarra  
 Eta munduan bere aomena  
 Odoiaz goiti dagoena.

Zenbait ibilli eta jazarra  
 Cadiz-en eta Lisboan!  
 Errendituak zenbait gudari  
 Antonio-ren menpean!  
 Asko alditan Olandesakin  
 Eta mairuen artean  
 Bildurra zer zan ez jakin  
 Okendoren biotzean.

Rautauriako ontzi guztien  
 Agintari zan Okendo  
 Ibiltzen zana itxasoetan  
 Aizea bezin agudo  
 Ala jantzan Brasill aldera  
 Donarioz eta garboso  
 Esanez «goazen etsaien billa  
 Diran lekuan eraso».





Ara nun dauden esaten zuan  
 Eman deiogun arpegi  
 Gogor... bakoitza bere lekuan  
 Su... su ill arte ez utzi  
 Ez oraindikan ez du etsaiak  
 Nere bizkarrik ikusi  
 Agertuko da jazar ondoren  
 Emen zein geran nagusi.

Asi ziraden sutan bertatik  
 Eta auspartzen aundiak  
 Eraso zion gogor albotik  
 Orduan ziran larriak  
 Baña Okendo beti azkarrak  
 Oso suturik begiak  
 An ekiñ zion su eta garra  
 Zati eginez ontziak.

Olandesak an eztu artuak  
 Larritazunak an ziran  
 Geienak seatu  
 Itxasoren erdian  
 Ontziak ere su artu zuten  
 Ondatutzeko zorian  
 Okendo bera zan errukitzen  
 Nai gabetasun aundian.

Ala dakite gizon biotz dunak  
 Errendituari barkatzen  
 Egi au bera bai euskaldunak  
 Gudari bada izaten  
 Izan gaitezen danok anaiak  
 Eta alkartu gaitezen.  
 O! ez ibilli euskal leialak  
 Lurrak odolez eztaltzen.

Izanik garailaria  
 Arrotasunik ez zuan

Ala zan gure gizon aundia  
 Jazar lekuan berean  
 Burua zutik, begiak argi  
 Eta ezpatia eskuan  
 Ematen zuan beti arpegi  
 Argidotarren moduan.

Fededun ona beti izana  
 Eta gudari aundia beregana  
 Jaungoikoak deitu zuan  
 Gizon illezkor argia  
 Alabatua bere izena  
 Gaur zeruetan jarria  
 Bere gloriar bete zuana  
 Betiko Euskalerria.



## BEZERRO BENGOA, ARRESE, ERRAN ETA MANTELERI

Erran, Manteli, Arrese jauna  
Eta Bezerro Bengoa  
Badet aspaldi biotz guztitik  
Ezagutzeko gogua.

Zuek bezela ditut maitatzen  
Jaungoikoa eta Fueroak  
Ay! baña ez nau pakean usten  
Lurraren amorioak.

Itxaso aldera beti begira  
Zabal zabalik begiak  
Oh, Jaun maitea Zer urriñ diran  
Euskal erriko mendiak.

Ara ontzi bat, goazen atozte  
Nere aur polit gaisoak  
Bildurrik gabe juan zaiteste  
Txit maite gaitu Jainkoak.

Mundu zarrean nola berrian  
Izan gaitezen prestuak  
Gizonarentzat agiñ zituan  
Ur eta lurrak Jainkoak

Zabaldu beti anaitasuna  
Amorizko kantuak  
Guzientzat du itzal ederra  
Gure arbola santuak.

## ELIZONDO-KO BATZARRA ETA EUSKALDUNEN GAUZIK MAITENA

(1879)

Zer atsegiña mendian bera  
Agertzen gure anaiak  
Esanez emen alkartu gera  
Izan euskaldun leialak.  
Ta ikustean gure artean  
Aomen aundiko gizonak  
Euskalerraren sorionean  
Argi, maiz egin dutenak.

Elizondo-ko ibar luzean  
Egontza eder batean  
Amorizko batasunean  
Ikusi ditugu pakean,  
Euskaldun onak esku emanik  
Jaungoikoaren aurrean  
Diotela emen gaude baturik  
Lur maitearen onean.

Euskalduna zan Pierre de Marti  
Biotz aundiko gizona  
Andiskitu nai zuana beti  
Jaungoikoaren izena,  
Eta gaur ere dator zerutik  
Fede bizi bat gugana  
Esanez beti, burua zutik  
Euskaldun onak generala.

Oroi gaitezen Santxo Portitzak  
eta Matxin de Mungiak  
zuten bezala izan biotzez  
onratu Euskalerrria;  
eta kondairak esan dezala  
mundu dan arte egia



urez ta lurrez maitatua da  
euskeldun odol garbia.

Izan Elkano ilezkoarren  
fede santu bat bizia  
erregu beti, betor Jaunaren  
zeruetako grazia;  
Bera lenengo emen lurrean  
eman ziguna argia!  
Bai euskaldunak, Elkanok zuan  
arritu mundu guztia.

Euskalduna zan Peñaforida  
Munibe lenargitia  
ikaz dezagun beral bezela  
onutzen Euskalerrria;  
bera lenego elkargoaren  
ipinle argi zuzena  
gaur euskaldunak bear da emen  
onratu bere izena.

Bere jakintza on bidezkoak  
Españan ziran zabaldu  
Peñaforida bezelakoak  
gutxi dirade azaldu;  
baina gaur ere uskal leialak  
batu gaitezen alkartu  
eta Munibek zuan bezela  
Euskalerrria maitatu.

Lurreratuak lege zar onak.  
Ezbearrean galduak!  
Makur gerade gaur euskaldunak.  
Erruki gaitu munduak!  
Baña gaur ere gizon biotzdunak  
euskaldun garbi prestuak  
beti dituzte gauzik maiteenak  
Jaungoikoa eta Fuegoak.

## LERSUNDI GUDALBURUARI

Asia, Europa eta Afrika  
Bakarrik ziran denboran,  
Gogorra, andia eta ederra,  
Gure España zegoan;  
Gero Kolon-ek zerbait arturik  
Marko-Poloren liburuan,  
Mundu berri bat bazalako  
Jarri zitzaion buruan.

Gauza andi bat izanagatik  
Mundu berri an sortua,  
Baña bai ere izan ta izango  
Españarentzat kaltea;  
Nola gabilzan Jainkoak daki  
Noiz egingo dan suertea  
Bai, milla bider utzegin degu  
Peru Españan uztea.

Zer zuten emen zelai oietan  
Española emen sartzean?  
Legoi, katamotz, euli ta suge  
Zapo galantak oiñ pean:  
Zorigaiztoko miruak bai ere  
Baziran Lima partean,  
Peru-ko minak izandu dira  
Españarentzat kaltean.

Lurrak badira mundu onetan  
Gutxi dutenak balio  
Gure Jainkoak Iberiari,  
Lurrik onena eman dio;  
Elurte asko, eguzki gutxi  
Begira zenbat nazio,  
Gure lur maite Españolari  
Arren, ez esan adio!



Afrikan bero izugarriak,  
 Elur galantak Rusian,  
 Biotza triste... ekartzen dute  
 Izan diranak Asian;  
 Gerra, legorta, bomito-beltza,  
 Daukagu mundu berrian,  
 Ez da España bezalakorik  
 Eguzki-aren azpian.

Mundu zarrean, gu, jaio-giñan  
 Utzi dezagun berria,  
 Gure Jainkoak maite izango du  
 Maite duana erria:  
 Gero iltzean izango bada  
 Deseo degun gloria,  
 Orain ta beti, maita dezagun,  
 España gure patria.

## EZKONGAIETAN

Ezkongaietan zerbait banintzan,  
 ezkondu eta ezer ez;  
 ederzalea banintzan ere  
 aspertu nintzan ederrez:  
 nere gustua egin nuen ta  
 orain bizi naiz dolorez.

Nere andrea andre ederra zan  
 ezkondu nintzan orduan  
 mudatuko zan esperantzakin  
 ere, batere ez nuan;  
 surik batere baldin badago  
 maiz dago aren onduan.

Zokoak zikin, tximak jario,  
 aurra zintzilik besoan;  
 adabakia desegokia  
 gona zarraren zuloan;  
 iru txikiko botila aundia  
 dauka berakin alboan.

Nere andrea alperra dago,  
 ez da munduan bakarrik;  
 gauza gozoen zalea da ta  
 ez du egin nai bearrik;  
 sekulan ere ez da ondo izango  
 alakoaren senarrik.

Larunbatetik larunbatera  
 garbitzen ditu zatar bi,  
 bere aietxek berotutzeko  
 erretzen egur zama bi;  
 belaun bietan bana artuta  
 ez da ixiltzen kantari.



Nere andrea goiz jeikitzen da  
 festara bear denean;  
 buruko mina egiten zaio  
 asi baino len lanean.  
 zurekin zer gertatu bear zen  
 nik bildurrikan ez nuan.

## BELTZERENA

Beltzerena naizela  
 kalean diote,  
 ez naiz zuri ederra,  
 arrazoia dute;  
 eder zuri galantak  
 pausuan amabi,  
 beltzerenak graziosak  
 milaetatik bi.

Beltzerena naizela  
 zuk neri esateko,  
 lenago zan denbora  
 erreparatzeko;  
 beltzak eta zuriak  
 mendian ardiak;  
 zuk ere ez dituzu  
 bentaja guztiak.

Beltzerana graziosa  
 parerik gabea,  
 mundu guztiak dio  
 zerala nerea;  
 munduak jakin eta  
 zuk ez jakitea,  
 ondo egiten dezu  
 disimulatzea.

Sarritan amodioz  
 dizut begiratzen,  
 arreta guztiakin  
 errespetatutzen;  
 begiak beltzez beltzak  
 itz ori donoso...  
 ez det mutilik bear  
 orren amoroso.



## EUSKALERRIA ETA AMERIKA

Gure Euskalerritik  
Ameriketara  
zenbait euskaldun gazte  
pozez joaten dira  
gurasoak utzita  
ondasunen bila,  
esanaz: ama, laister  
etorriko gera.

Egin ama tristeak  
damuzko negarra,  
ontziak onuzkero  
pasa zuen barra;  
izkututzen danean  
agiri ez dala,  
zeinek daki ai! zer dan  
ama baten pena.

Ez pentsatu an danak  
aberats dirala;  
pobreak ni bezela  
milaka badira;  
ara dijozenak  
ondasunen bila  
gutxi itzultzen dira  
beren sorterrira.

Egia, emen ere  
joan dan aspaldian  
gauza onik ez degu  
Euskalerrian;  
oraindaino bezela  
bagabiltza auzian  
emen biziko gera  
beti miserian.

Nere adiskideak,  
bear da pentsatu:  
lujuak miseria  
gutziz gertuan du.  
Asi, bada, gaur bertan,  
gonak oiek moztu...  
familian pakea  
izango badegu.

Neskatzak diote: goazen  
Ameriketara;  
an guztiz apainduak  
ibiliko gera...  
Bada, gaixoak, joan zan  
Jaujaren denbora,  
an ere lan eginda  
bizi bearko da.

Eman, adiskideak,  
munduari buelta;  
an baino lur oberik  
inun ere ez da;  
eta zerutxoren bat bilatu nai bada,  
emen bertan ditugu  
Donosti eta Deba.

Zuk, ere badakizu  
bai Isabelita  
Euskalerria dala  
gutzizko polita.  
Emen asia zera  
emen zure aita  
lur au berak bezela  
bear dezu maita.



## EZ BEDI GALDU EUSKERA

Gure euskera eder maitea  
galtzen gaur degu ikusten,  
euskaldun onak arritzeko da  
nola ez diran lotsatzen!  
Larramendirik, Astarloarik  
ez da geiago aipatzen...  
Ez da utsegin aundiagorik  
ondo badegu pentsatzen.

Galdu dirade oitura onak,  
galdua dugu Euskera...  
ola bagaude, eun une barru  
galdu da gure izena!  
Erro, Aizkibel ziran bezela  
erakusterik gaur ez da.  
Gure euskera ...ai! galtzen bada  
gu... euskaldunak ez gera!

Nola isildu eta barkatu?  
Etorkizunen Kondairak  
arrazoiakin esango digu:  
nun dira zuen oiturak?  
Damu dute bai... gaur euskaldunak  
lotsa pixka bat dutenak,  
aspaldi esan duten bezela  
gizonik jakintsuenak.

Dala Parisen eta Londresen  
jakintsu asko badira;  
euskerazko liburu zarren  
ondoren ibiltzen dira...  
Or da Luziano, printze ernaia,  
orain guretar deguna,  
euskerazale bikain-bikaina,  
jakintsuetan aundi dena.

Arren, ez bada galdu euskera,  
nere anaia maiteak!  
Galtzen badegu... galduak gera  
gu eta gure semeak.  
Beti euskeraz itz egin, bada,  
oso zaar eta gazteak  
esan ez dedin denok gerala  
euskaldun biotz gabeak.



## ALOÑA MENDI

Aloña mendi aldamenean,  
guztiz leku agirian,  
Oñati eder au ikusten da  
zelaitxo baten erdian.

San Migeletan ango jaietan,  
dantzan ta alaitasunian,  
ai zer egunak pasa ditugun  
bizkaitarren lagundian.

Begara ta Markina,  
Mondragoi ta Oñati,  
gaztedi eder fina  
an bai zan galanki.

Partidu ederrak jokatzeko ziran  
egun aietan Oñatin;  
jokalari onak nola ziraten,  
onena zein zan nork jakin?

Batzuek zioten: Or Bizimodu,  
besteak «Biba» Gereta;  
mutil gogor au azkar zebilen  
arrapatzeko pelota.

Merlaet ta Marinela,  
Zugarri, Gereta,  
aurrean dabilena  
arrimatzen pareta.

Marinela da altu zabal bat,  
guztiz jokalaria ona,  
Bizimodu da aidosua ta  
atzean ematen du lana.

Merlaet, berriz, galai gazte bat  
segurua ta arina;  
Zugarri aurrean, ene mutilak,  
ematen du zer egina.

Bizkaian ta Probintzian,  
pelotari onak,  
oberik ez Españan.  
«Gora euskaldunak».

Goierriko jende guztia,  
lekaioa ta saltoka,  
umore onean mendiak bera  
Oñatira doa lasterka.

Ail zer egunak, nere lagunak,  
Probintzin dira pasatzen;  
oraindik ere oroituzean  
bereala naiz poztutzen.

Nere adiskide maiteak,  
diberti geranak,  
naiago nuke balitz  
San Miguel egunak.

Gora Oñati eder ta zabal  
ta bere jende atsegina,  
kanpotar danok ongi artzeko  
egin dezute alegina.

Erri onetan alkatea ere  
da leiala ta txit ona,  
danok batean esan dezagun:  
gora gure alkate jauna.

Agur, gaztedi ederra,  
erri au det maitatzen,  
emendik banoa baina  
biotza det gelditzen.





Mila amorio dedan erritik  
penaturikan joan bear  
nere biotzak egingo luke  
bai orain bertatik negar.

Txikia ta aundi, danori, agur,  
bai ere armenteriak,  
adiskideak Kristoren legez  
danok gerade anaiak.

Nere adiskide maiteak,  
oiek dira egunak,  
aberats ta pobreak  
gaur gera lagunak.

Plaza eder artan ibiliagatik  
dantzan, bai, jende guztia,  
umore ona zan danen artean,  
erri guztia pakean.

Neskatxa ederrak agertzen ziran  
su argien artetian;  
ondoren berriz, galai gazteak  
txoraturikan atzian.

Danbolin soinu eder  
dantzan gazte zarrak,  
zebiltzen umore onez,  
poz goierritarrak.

Erriko jaunak atzera zuan  
ilunabarrean dantza;  
ai! ederra eta ikusgarria  
orduon Oñatiko plaza.

Ezin da obeto egin zituan  
jira-bira dantzaurriak;  
ondoren zetozen apaindurik  
bertako dama guztiak.

Dama artean dana  
modu ta grazia,  
arriturik gelditu  
zan jende guztia.



## SISTEMA METRIKOARI

Frantzian dana omen da  
dana inkonstanzia:  
baina asmoarentzat  
badute grazia.  
Aurerratik ei dago  
gure auzo erria:  
orain ekarri dute  
sistema berria.

*(Recitado)*

Ikusiko zenduke  
zeinek entenditu lukeen  
lenguaje ori?  
Eskola Maisu Jaunak  
esan dit lengo egunian,  
libra bat aragi  
edo libra bat legatz,  
erostera bazuazte plazara,  
esango omen da:

Kilometro, Ektometro  
Dezimitro, Milimitro  
Litro, Ektro, Setro, Netro;  
Ai, au diabrukeria!  
Zeinek adi lezake lenguaje ori?  
Eta Eskola Maisu Jaunari  
Asarratuta esan nion.

*(Recitado cantado)*

Kilometro, sistema berria  
entenditu ez lezake;  
diabrukeria oiek  
ez dira sartuko nere buruan;  
Eta libra, libra erdi,  
laurden, laurden erdi  
esan bearko antxinako moduan,  
Ai, onen biziak!

## ALEGRIKO TRAPERARI

Neska batek besteari esaten zion, emakumetxuak ikusi al den kabua? Ez kaborik eta ez sargentorik ere jende klase orrekin tratzen degula pentsatzen al den, neska, ja jai! conversación y todo lo que se quiere zipirri zaparra zer nai baino jende dase orrekin tratatu gutxi, goazen berriz neska trapuak biltzera.

Egunez trapu biltzen  
Gabean dantzan lertzen  
Beti umore onean  
Ibiltzen gera  
Eta goizean goiz  
kalera irten da  
Lo gosoan daudenak  
Esnatutzeko.

Atera, atera  
Trapuak saltzera  
Nik erosten det  
Modu onetan  
Ardit albarka  
Cuarto alpargata  
Ta burni zarra  
Txanponian.



## PLUMA LORI ZATAR

Pluma lori zatar bat  
zorroturik gaizki  
asi zan eskribitzen  
arroturik lazki  
gure arbola itzeko  
asmoetan noski  
obe dute pakean  
nere ustez utzi.

Arbola aitatzean  
erdeldunen mina  
ez dakit nundik duten  
orrelako grina  
mundu guztian dute  
sustraia egina  
errespetatu beze  
aran erregina.

Berak arbola gabe  
ez badaude ongi  
imitatzen dute  
Euskal erriari  
orra dana konserbatu  
gaitzik ez inori  
eta posible balitz  
gu bezela jarri.

España guztia  
jakinean bego  
euskaldunok ez gera  
jo ta artzen egongo  
arbol maitagarria  
gogor eta bero  
kontserbatuko degu  
orain eta gero.

## TOLOSAR ONGILEARI

Viva Tolosa eder  
Zeru bat egina,  
Probintziaren erdian  
Dirudi erregina;  
Zu ikustian beti  
Det amore mina,  
Zeren daukazun jende  
Guztiz atsegina.

Ai zer edertasuna  
Zelaitxo batian,  
Lore eder bat dirudi  
Mendi bitartean;  
Ez baitzaitut ikusi  
Juan dan iru urtian,  
pozez zoratzen nago  
anaien artian.

Probintzia guztia  
Umore onian,  
Tolosara etortzen da  
San Juan egunean;  
Danbolin soinu ederra  
Adizu kalia,  
Guazen zezenetara  
Guztiok batian.

Gure Probintzi ederra  
Da pare gabia,  
Ondo gordetzen badu  
Fueroen legia;  
Gure lege zar onak  
Gordeko dira aisa,  
Esan dezagun danok: bai...  
Tolosarren gisa.



## BURNIZKO BIDEARI

Asmoerak dirade  
gaur nazioetan  
asma orduko egiten  
diranak benetan:  
Zeinek usteko zuen  
juan dan urtean  
ori pasako zala  
gure Probintzian?

Probintziak bakarrik  
bear ez dira aitatu  
bada nazio guztiak  
bear degu alkartu:  
eta pasatua pasa  
gorrotuak aztu  
berdin alkar artzeko  
Jaunak egin gaitu.

Begira adiskideak  
or Frantzi aidera  
mundu guztia doa  
lezioak artzera:  
orain bada nai nuke  
eman aditzera  
zergatik bear degu  
gelditu atzera?

Viva gure España  
eta asmoerak,  
zeinen enbidia dute  
gure lur ederrak?  
Mendi eta zelaiaik  
zeinek ditu onenak,  
ardo, gari, olioiz  
beterikan danak?

Ekin deiogun bada  
burdin bideari  
eta oso egin arte  
eraso lanari:  
astindu bat emanaz  
lenbailen lurrari  
eta anditasuna  
gure Españari.

Aditzera degunez  
amar urte barru  
baporea asiko da  
Jainkoak nai badu:  
ala digute beintzat  
frantsesak agindu  
asiera eman da eta  
alkarri lagundu.

Bertati asi gaitezen  
Jaunari erregutzen  
pakean bizi bitez  
dutenak agintzen:  
Ah! geiago ez balitz  
gerrarikan sortzen  
beti ibili gabe  
bata bestea iltzen.



## TXARDIN BERRIAK

Santa Agedatik Altzolara  
Altzolatik Debara,  
atozte, atozte lenbaitlen  
bañu gez gaziak artzera.  
Ta ni Aiataik barrena banua  
banua txardinak saltzera.

## ILARGI EDER

Zeru altuan ilargi eder  
izartxo bire erdian, (bis)  
nere maitea ikusten nuen  
dantzara zijoanian.  
Ia korrika ez zukeaken  
lagun guzien artean.



## EGUALDI IZUGARRIA

Ernio gainetikan  
Aitzkorri mendira,  
Gaur ikaragarritzko  
Tximistak badira!  
Nekazariak diote  
Egualdi au zer da?  
Munduaren akabera  
gaur eldu ote da!!

Ara mendia bera,  
Urak nun datozen,  
Ala ere gizonak  
ez dira bildurtzen:  
Nola biziko geran  
Ez dute pentsatzen,  
Arto eta gariak  
Badira ondatzen!!

Aurra atoz onera  
Ama onak dio  
Jaunari erregutu  
Beti bear zaio;  
Munduan gauza gutxi  
Guk degu balio...  
Pentsa ezazu ongi  
Gaur gerala jaio!

Nere begi aurrean  
Pasa da tximista,  
Aritz bat or egin du  
Zati... mila puska!  
Atoz ene maitea,  
Zu nere biotza  
Jaungoikoagana beti  
Izan esperantza.

Begira eguzkia  
Nun degun ikusten,  
Aizeak asi dira  
Oraintxe onduten;  
Asi bertan ezkerak  
Jaunari ematen,  
Ara gure gizonak!  
Orra nun datozen.

Ama eta umeak  
Etxeko atean,  
Zoraturikan daude  
Aita ikustean.  
Musu eta laztanka  
Etxe barrenian,  
Zori ona nun dago?  
Ortxe... baserrian.

Egon baserritarrak  
Soseguz pakean  
Eguzki argia da  
Ernio alderan;  
Eta denbora txarra  
Etortzen danean,  
Gizonak bear du izan  
Kalma biotzean.

(1878)



## ARANTZA ZORROTZA

Amorioa bai da  
 Arantza zorrotza  
 Zeinak zulatzen duen  
 Portizki biotza  
 Eritu gabetanik  
 Ez liteke goza  
 Beragandik sarritan  
 Jaio oi da poza.

Maitasun geiegia  
 Artzea inori  
 Zein gauza gaiztoa dan  
 Progatzen det ongi  
 Atsekabez beterik  
 Gau ta egun beti  
 Ezur uts biurtutik  
 Arkitutzen naiz ni.

## AMOREZ ERIA

Amorez eri nago  
 Aspaldi onetan,  
 Zureatik maitea  
 Gau ta egun penetan!  
 Arki nezake poza  
 Badakit nik zertan  
 Sendatuko nitzake  
 Zure besoetan.

Nere maite polita  
 Zutzaz oroitzean  
 Odola pil pil dabil  
 Nere biotzean:  
 Kanpora irten nairik  
 Alegin guzian  
 Min txar au bearko zait  
 sendatu iltzian.

Berotasun gozo bat  
 Zainetik zainera  
 Nere gorputz guzian  
 Maite sentitzen da;  
 Gustoaren pasioz  
 Sartzen zait ikara  
 Itzikan ere ezin  
 asmatu dedala.

Eduki dezazuke  
 Ongi sinistua  
 Zeruak naukala ni  
 Zureztat artua  
 Ez nazu ikusiko  
 inoiz mudatua,  
 Ala egiten dizut  
 Gaur juramentua.



Adios nere maitea  
 Sekulan detiko,  
 Ezkonduko zerade  
 Ni natorreneko;  
 Maiteak erantzun dit  
 Pena andi batekin  
 ez naiz ni ezkonduko  
 ez bada zurekin.

## **BILBAO ETA FUERUAK, PAKEARENTZAT**

Biribil-bado zer polita dan  
 Orain Bilbao deitzona  
 Mundu guzian artu du fama  
 Merezimenduz duana.  
 Bi aldiz gerra, bonba eta bala  
 Bilbao ez zan ikara  
 Naiz eta jakin elgo zirala  
 Numanziarrak bezela.

*(Korua)*

*Biba gure arbola*

*Gora-bedi gora*

*Eta maite ez duena*

*Ez da Euskalduna*

Begoñatik da ikusgarria  
 Lopez Haroren erria.  
 Or bai or dago jakinduria  
 Or Euskaldunen argia.  
 Orain laurak bat izango gera  
 Oro beltza eta zuria  
 Zureganatu laster bear da  
 Euskalerra guzia.

*(Korua)*

Alkar gaitezen anai maiteak  
 Alkartzea da indarra  
 Zuri begira daude Arabar  
 Gipuzkoa ta Nafarra  
 Bizi pakean laurak batean  
 Errespetatu arbola  
 Arrotasunik batere gabe  
 Euskaldun zarrak bezela.





*(Korua)*

O gaztelauak! Arren ez izan  
 Gorrotorikan gugana  
 Badakizute gure mendiak  
 Guztiz pobreak dirala  
 Baina gu lanak ez gaitu aspertzen  
 Osasun ona degula  
 Zorion gera ikusten bada  
 Loraturikan arbola.

*(Korua)*

Gure anaiak ez dira oroitzen  
 Ibero zarrak zer ziran  
 Gaztelaukin ziran Navas-en  
 Gonzalorekin Granadan  
 Galde bai galde Okendo zer zan  
 Inglaterran ta Holandan  
 O, Españaren betiko onra!  
 Nor ez da oroitzen Trafalgar?

*(Korua)*

Ez gerturatu gerra soinuan  
 Numanzia bigarrenera  
 Cid-en semeak nai dutenean  
 betor anaiak bezela.  
 Gu beti gora zuzen bidean  
 O bai! Gernika maitera  
 Gure arbola beltzez jantzia  
 Makurturik ikustera.

*(Korua)*

Ai! Bizi balitz aita maitea  
 Arrieta Maskarua  
 Eta arbola bedinkatua

Ikusi lurreratua  
 Esango luke, Zer da Bizkaia  
 Galdu ezkerro fueroak?  
 Penagarrizko anima eria  
 Da gaur Bizkaia gaisoa.

*(Korua)*

Jauna begira zure semeak  
 Il naian bata bestea  
 Emen iguzu lengo legeak  
 Izan dezagun pakea  
 Gerra dakigu dala infernua  
 Bada anaien artean  
 Betor gugana zure erreinua  
 Arbolarekin batean.

*(Korua)*

Arbola Santu amoriozkoa  
 Nolatan erori zera  
 Zu, euskaldunen konsuelua  
 Zori oneko argiera  
 Baina oraindik piztuko zera  
 Esperantzatan bai gera  
 Orduan igo lainuetara  
 Makurtu gabe lurrera.

*(Uruguay, 1876)*